



OSTATU-MAHAIA

2024-04-24

GAI-ZERREDA:

1. Sektorearen aurkezpena eta azterketa.
2. Enpresentzako aholkularitza-zerbitzuak.
3. Enpresa turistikoentzako aholkularitza-zerbitzuak.
4. Informazioa hurrengo gaietara buruz:
 - GetxHotel
 - EMET laguntzak
 - Getxo, helmuga turistiko adimenduna. Turismo etikoa. Surf herriak.
5. Fororako ordezkari berria.
6. Ideia eta proposamen berriak.

BERTARATUAK: (% 60)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoi emanda	Arrazoirik eman gabe
Neguri hotela	Javier Angulo	X		
Embarcadero hotela	Bárbara Anasagasti			X
Los Tamarises hotela	Karmele Abarrategui			X
Igeretxe hotela	Nagore Saiz			X
Artaza hotela	Joseba Oribe			X
Areeta pentsioa	Gorka Mendia Raquel Suárez	X		
El Abra pentsioa (orain, Getxo Rooms)		X		
Basagoiti pentsioa	Mikel Valdés			X
Kai apartamentuak	Jasone Fernández			X
Etxetxu apartamentuak	Iñaki De La Torre			X
Arriluze hotela	Ander Elortegi	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapen Arloa	Idoia Belasko	X		
	Mercedes Montalban	X		
	Ane Osoro	X		
	Rubén Justicia	X		

EDUKIAK



1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mahaiko kide gehienak mahaira lehenengoz bertaratzen direnez, merkataritza-teknikaria den Rubén Justiciak enpresen kontsulta-foroa zertan datzan azaldu die. Rubének komentatu du enpresen, elkarten eta sektore publikoaren arteko elkarlaneko gunea izateaz gain, kontsulta-foroa enpresetako arduradunak elkar ezagutzeko eta “Networking” lan-sarea eratzeko erabiltzen dela. Helburua da sinergiak sortzea eta udalerriko problematika hobetzea.

Ekonomia Sustapen Arloko teknikaria den Idoia Belaskok azpimarratu du ostatu-sektoreak enpresen arteko harremana erabil dezakeela udalerrriaren barruan bezeroak trukatzeko: “Apartamentuak beteta badituzu edo zuk eskaini ezin diezaiokezuen zerbitzu-mota baten bila dabilen bezeroren bat aurkezten bada, jakin behar duzu udalerriko zein beste ostatu gomendatu”.

Informazio gehiago: [Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa-Enpresen Kontsulta Foroa](#)

Neguri hoteleko Javier Angulok udalerriko ostatu-establezimenduak seinaleztatzeko eskatu du. Udalean 1996. urtean eskaera bat aurkeztu zuen Getxoko hotel nagusien seinaleak hobetzeko, baina Udalak ez duela ezer aurreratu komentatu du. “Gaur egun uste dut hotelek ez dutela errepideko seinalerik turistei ostatu-establezimenduraino egin behar duten bidea adierazteko. Lotsagarria da”.

2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

2.1. Enpresentzako aholkularitza-zerbitzuak

Ekonomia Sustapen Arloak, Idoia Belaskoren bidez, Getxolan eta bere zerbitzuak, azpiegiturak (Elkartegi eraikina eta 2 hub) eta udalerriko enpresei zerbitzua emateko laguntzak aurkeztu ditu.

Enpresak aholkatzeko zerbitzuei dagokienez, Idoiaren esanetan, gaur egun Ekonomia Sustapen Arloak bi programa berri ditu: batetik, lidergoko gaitasunei buruzko programa eta, bestetik, produktuak eta zerbitzuak anizteko tresnak ematen dituen programa. Udaleko webgunean informazio guztia non aurkitu adierazi die.

Informazio gehiago: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Ekonomia Sustapena](#)

[Amaitzeko, esan du azken berriei buruzko informazio guztia jasoko dutela Ekonomia Sustapen Arloko newsletter eta sare sozialetako perfil bidez.](#)

2.2. Enpresa turistikoentzako aholkularitza-zerbitzuak

Enpresa eta jarduera turistikoen teknikari den Ane Osorok azaldu du enpresentzako aholkularitza-zerbitzuaz gain, Ekonomia Sustapen Arloak prestakuntza- eta aholkularitza-plan espezifikoak duela turismoaren arloko enpresa bakoitzerako espezializatua, eta programatuta dauden hurrengo ikastaroak azaldu ditu:



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

- 2024-04-30: Storytelling eta sare sozialen tailerra
- 2024-05-07: Turismoaren sektorean berritzea
- 2024-05-15: Digitalizazio-jardunbide egokiak, enpresa turistikoei zuzenduta

Ane Osorok komentatu du dinamizazio turistikorako ere laguntzak daudela, baldin eta enpresek zerbitzu erregular bermatuak ematen badituzte, hau da, enpresek, besteak beste, honako jarduera hauek egiten badituzte: bisita turistikoa, dastaketak, irteerak itsasontzian, etab. Hala, laguntza interesgarria izan daiteke, beren instalazioen barruan jardueraren bat egitea erabakitzen badute: "Laguntzen helburua da Getxon jardueren eskaintza turistikoa antolatzea aurretik erreserbatu gabe eta gutxieneko taldea osatu gabe".

Informazio gehiago: [Getxoko planak](#) Irteera Bermatuak atala.

2.3. GetxHotel programa

Enpresa eta jarduera turistikoen teknikaria den Mercedes Montalbánek laburki aurkeztu ditu Turismoako webgunearen bidez Turismo Arloko zerbitzuak. Informazio gehiago: [Getxoko turismoa](#)

Halaber, GetxoHotel programa eta horren funtzionamendua azaldu ditu. Mercedesen esanetan, aurten jarduera gehiago erantsi dira bezeroek hautatu ahal izateko:

- [Bizkaia Zubiaren oinezkoentzako pasabidea](#)
- [Ibilbide geologikoa eta ingurumenaren arlokoa flyschean zehar](#)
- [Ibilbide geologikoa flyschean zehar: "Azkorri, magnetismoa daukan hondartza"](#)
- [Ibilbide geologikoa flyschean zehar: "Flyscha gauez"](#)
- [Hiriko ibilbide geologikoa: "Jauregiko arroken istorio sekretuak"](#)
- [Antzeztutako bisita gidatuak: "Portu zaharraren jatorria"](#)
- [Antzeztutako bisita: "Areetaren jatorria"](#)

Hona hemen oparia lortzeko baldintza bakarrak: denboraldi altuan gutxieneko erreserbak hiru egunekoa izan behar du eta denboraldi baxuan bikoia.

Mercedes Montalbánek adierazi du Petit Palace Tamarises hotela eta Kai apartamenduak direla programa honen barruan eske gehienak egiten dituztenak, bezeroen artean aditzera gehiago ematen baitute.

Informazio gehiago: [Getxo – GETXO EZAGUTU – GetxHotel sustapena](#)

2.4. EMET laguntzen programa

Mercedes Montalbánek enpresa turistikoen ekintzailtzarako eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programaren (EMET 2023) gaineko baldintzak jakinarazi ditu:



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Dirulaguntzak, gehienez, % 40 estaltzen du 18.000 eurora iritsi arte eta hona hemen bere helburuak:

- **Negoio turistiko berriak sortzea:** Ekitaldi horretan eta hurrengo ekitaldiko urtarilaren hasiera baino lehen abian jarri eta funtzionarazteko inbertsioak. Ostatu-establezimenduek jarduera epea amaitu ondoren hasten badute, eskaera egin baino lehen indarreko araudira egokitzeari buruzko txostenaren eskaera izapidetuta izango dute.

Dirulaguntzak, gehienez, % 30 estaltzen du 15.000 eurora iritsi arte eta hona hemen bere helburuak:

- **Lehiakortasuna hobetzea:** kudeaketa digitalizatzeko soluzio teknologikoak; kudeaketa adimenduneko sistemak (domotika); haririk gabeko konektibitatea hobetzea; instalazioak eta ekipamendua hobetzea; instalazioak, zerbitzuak, produktuak eta online komunikazio-sistemak erabiltzeko orduan irisgarritasuna errazteko teknologiak.

Amaitzeko, Mercedes Montalbánek esan du *EMET 2024 Laguntzen* deialdi berria ebazteke dagoela eta argitaratzen denean ohartaraziko zaiela.

Informazio gehiago: [Ekintzailetzarako eta turismo-enpresen lehiakortasunaren hobekuntzarako Laguntzak - EMET 2023 - Eusko Jaurlaritza \(euskadi.eus\)](#)

2.5. Getxo, helmuga turistiko adimenduna. Turismo etikoa. Surf herriak:

TURISMO ETIKOA

Ane Osorok turismo etikoko proiektuaren berri eman du, eta azpimarratu du bereizgarri hori izatea garrantzitsua dela besteengandik nabarmentzeko: “Helburua da turismo etikoagoaren eta jasangarriagoaren alde lan egitea”. Halaber, azpimarratu nahi du bereizgarri etikoa lortzearen garrantzia, EMET laguntzak eskuratzeko nahitaezkoa baita zigilu bereizgarri etikoa izatea.

Amaitzeko, Ane Osorok esan du interesa badute, Udalaren laguntza teknikoa eskura dezaketela zigilu bereizgarria lortu arte behar diren fase guztiak betetze aldera.

Informazio gehiago: [Getxo – Ekonomia Sustapena – Programak - Turismoaren kode etikoa](#)

GETXO, HELMUGA TURISTIKO ADIMENDUNA

Ane Osorok adierazi du Getxo Helmuga Turistiko Adimendunaren (HTA) zigiluarekin aintzatetsi dutela. Helmuga turistiko adimenduna (HTA) programak helmugan lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantzaren, berrikuntzaren, teknologiaren, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren bitartez.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

Ane Osorok adierazi du 2023ko abenduan BasqueTourren diagnostikoa jaso zutela eta mahaian lanean ari direla BasqueTourrek proposatutako hobekuntzak ezartzeko. Ane Osorok adierazi du zalantzarik izanez gero helbide elektroniko honetara idatz dezaketela: dti@getxo.eus.

SURF HERRIEN SAREA

Ane Osorok adierazi du Getxo 2022an sartu zela “Surf Herrien Sarea” estatu-programaren barruan. Programa hori EBko Next Generation Funtsek diruz laguntzen dute. Proiektu hori Kantauri aldeko udalerriekin, Ferrol, Carballo eta Valdoviño (Galizia) mankomunitatearekin eta Castrillon (Asturias) eta Ribamontan herriekin batera egiten da. Gaineratu du helburuak hauek direla: surfari balioa ematea, eremu horietako jarduera turistikoa hobetzea eta jasagarritasuna sustatzea.

Era berean, argudiatu du proiektuaren marka-irudia ezartzen ari direla gaur egun. Datorren astean, marka-irudiaren aukeraketa parte-hartze publikoaren prozesuaren mende jarriko da. Asmoa da bisita surfarengatik egiten duen turistari beste kirol-, turismo- eta ostatu-jarduera batzuk eskaintzea.

3. Fororako ordezkari berria/k:

Jakinarazi da **ostatu-sektoreak ez duela ordezkaririk**. Rubén Justiciak azaldu du mahai honek **huts bat bete behar duela**, sektore horrek gaur egun ordezkariarik ez baitu:

- *Tokiko ostatu-sektore osorako.*
- *Hura enpresen kontsulta-foroan ordezkari izateko:* foro horretan, hainbat sektoretako ordezkariak lehentasuna ematen diete beste hainbat mahai sektorialetatik helarazitako proposamenei.
- *Kontrasteko Mahai Politikoan ordezkari izateko:* foro horretan, hainbat sektoretako ordezkariak beren beharrak eta proposamenak azaltzen dizkiete udal-ordezkariak duten talde politikoetako ordezkariak.

Mercedes Montalbánek adierazi du historikoki deitutako pertsonetatik oso gutxi parte hartu dutela, eta arazoaren zioa bilatzen saiatu dela. Mahaia bultzatzen saiatu da, ordezkari izan behar duelakoan baitago. Era berean, Idoia Belaskok aipatu du ostatu-mahaiaren baitan askotariko eskaintza dagoela eta guztiek ez dituztela behar berberak: hotelak, pentsioak, apartamentu turistikoa, etab. daude eta, beraz, garrantzitsua da udalerria hobetze aldera bakoitzak bere azterketa eta betebeharrak jakinaraztea.

Arriluce jauregiko Ander Elortegik iradoki du forora helarazten diren ekarpenek norbanakoaren balioaren aldean gehiago nabarmendu behar dutela Getxoko sustapen turistikoa balio komuna. Lokal bakoitza kudeatzeko beharrei dagokienez, eskaera eta ekarpen egokiak egiteko bideak eskuratu zaizkie.

Azkenik, **Areeta pentsioko Gorka Mendiak eta Arriluce jauregiko Ander Elortegik** beren buruak aurkeztu dituzte mahaian ordezkari izateko.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

4. Ideia eta proposamen berriak.

El Abra pentsioko (orain, Getxo Rooms) Raquel Suárezek azaldu du Areetako hirigunean kokatuta dagoenez, bere bezeroek aparkatu eta ekipajea deskargatzeko zailtasunak dituztela eta, ondoren, proposatu du TAOren bonu bat sortzea hotel-establezimenduetako bezeroentzat ala turistaren zamalanetarako geltoki bat definitzea ostatuaren atetik gertu.

Mercedes Montalbánek aipatu du mahaiaren azkeneko deialdian Etxetxu apartamentuetako jabea den Iñaki de la Torrek proposatu zuela TAO txartela bat egitea ostatu turistikoetako ostatu-hartzaileentzat, ordaintzeko guneetan doan aparkatu ahal izateko. Ideia baztertu egin zen udal-ordenantzak aukera hori ez baitu aurrez ikusten. Bere ordez, Mercedesek aipatu du balizko konponbideak aurkitu behar direla, hala nola ordutegi zehatzaren barruan zamalanetarako plaza bat jartzea, bezeroek check-ina eta check-outa egiteko. Izan ere, hala egin zen Igeretxe hotelean.

Arriluce jauregiko Ander Elortegik aldaketa bat iradoki du Getxoko kanpaina gastronomikoaren barruan QR kode bidez atxikitako establezimenduen zerrendarako. Alfabetikoki antolatu ordez, azpimarragarrienen arabera ordenatzea proposatu du. Halaber, ingeleseko itzulpena hobeto daitekeela dio. Mercedes Montalbánek azaldu du aipatu duen kanpaina oso edizio zaharra dela eta egun kanpaina berria abiarazi dutela.

Hurrengo urratsak:

- Enpresen **Kontsulta Foroa** deitzea **maiatzaren 22rako**. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

OSTATU MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-04-24):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako-aktaren zirriborroa bidaltzea	Ekonomia Sustatzeko Arloa	Bileratik aurrera
2. Mahaiaren ordezkaritza kudeatzeko baieztapena bidaltzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Mahaiko ordezkari berriaren argazkia eskatzea eta fitxa eguneratzea.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. EMET 2024 laguntzen deialdiari buruzko informazioa bidaltzea.	Ekonomia Sustapen Arloa	Argitaratzen denean
5. Getxoko hotelen seinaleak hobetzeko aukerak bilatzea.	Ekonomia Sustapen Arloa	Bileratik aurrera